

... eta kitto!

ITURRI ONETIK

Langabezia estankatuta iaz emandako jeitsierak ez du aurten jarraipenik

Gauzak urtez urte aldatzen doazen heinean, heurrei ematen zaien tratamenduak eta hemendik ateratako estatistikak irakurketa berezia eskatzen dute. Gaur egun, lanik gabe dagoen pertsonen kopurua ezin da zuzenki lanekatzailen zenbakitik lekualdatu. Horrela, Eibarko Enplegu Bulegoan -Deba Beheko Gipuzkoako aldeari zuzendua, bestetik- azken


1991eko Apirilean 3863 dira langabeak; 3047 besteak, nahiz eta lana eskatu zeozertan ari direnak. Hilabete bat aurretik, Martxoan, 60 gutxiago langabetuen artean (% 1,5a) eta 204 azkenengo taldean (% 7a). Zergatik? Azken hilabetean erreduziozko expedienteak eman direlako gehienbatean. Ezin da ahaztu, dena den, kopuru hauek Eskualdekoak dira, ez Eibarkoak. Arlo honetan, hemengo Bulegoan ematen diren zifretatik gure herriari dagozkionak % 55a esango genuke dela, gutxi gora behera: % 54a lanean dihardutenen artean. Orain dela bi urte 4783 langabekotik 2749 Eibarkoak ziren eta iaz 3753tik, 2164. Beraz, mila pertsonen beharakadan, Eibarri ia seirehunena zegokion. Garrantziko jeitsiera, dudarik gabe: % 21a pasata. Honek langabeziaren tasa 19,84tik 15,62ra jeitsierazi zuen, 4,22 puntu.

Langabeziaren hatzapparretan, emakumeak gehienbat

Hemen ere beste lekuetako desberdintasunak nabari daitezke. Bulegoan lan eskakizunei begiratu gero, 3335 gizon eta 3311 emakume aurki ditzakegu. Baina pixkat sakontzerakoan, zerekin egiten dugu topo? Gizonen kasuan inolako lanik gabekoak 1494 direla -apuntatutako % 45a-; emakumeen egoera guztiz alderantzizkoa da, 2309 bait dira langabezia aurkitzen direnak -izena emandako % 70a-.

Lanik gabeko 3803tik (datuak aurtengo Martxoakoak dira), % 60a emakumezkoen lerroetan kokatzen dira -2309-; gizonenak 1494 dira. Beste taldean, lan eskatzaile izanda ere langabezi hutsean ez dauden artean -expedientearekin, INEMeko

ikastaroetan, lan koiunturalekin, esdiatzen-, 1841 (% 65a) gizonak



Ehuneko hamaseiak ezin du lanik aurkitu

dira eta 1002 emakumeak (% 35a). Guztira 2843, apuntatutako totalaren % 43a. Martxoan Bulegoan zeuden 6646 apuntatuak, lehen esan bezala, Apirilean gehitu egin dira, 6910ra pasatuz (% 4ean). Hilabete horretan 166 kolokazio eman ziren, 116 gizonen kasuan eta 50 emakumeen. Aldea, beraz, mantentzen da.

Erdiak 30 urte baino gazteagoak

Apuntatutako artean 3039 (% 45a) ez dituzte oraindik 30 urte bete. Gazteagoen talde honetan 1813 dira lanik gabe dagoenak; beste % 40ak beste atalean sar ditzakegu, beste zeozeri heldu diotenak nahiz eta lana eskatu, hain zuzen. Ikusten

hauen zifrak lanik gabe dagoen kantitatea ia bikoiztera iristen da. Zer dela eta? Ikasleak, lan koiunturalak egiten dituztenak, INEMeko antolatutako ikastaroak burutzen ari direnak, etendura edo erreduziozko expedienteak jasaten dituztenak, guztiak daude barruan. Bestalde, benetako langabezia sufritzen dutenen artean emakumeak, dudarik gabe.

da neskek mutilak gehiago dirrela izen eman dutenen artean eta le-

Ehuneko 27a lehendik lanik egin gabe

Sektorezko sailkapena egiterakoan langabezia dagoen 3803 lagunekin ateratako portzentaiak aztertzerakoan talde handiena (% 41a) industri arloan [-batez ere metala lantzen eta antzekoetan ibilitakoak- koka ditzakegu; jarraian, % 30a inoiz lanik egin ez dutenak dira, beste % 26 zerbitzu esferan mugitu direnak eta konstruzioan lan egindakoak % 2 dira bakarrik.


Ikasketak mailari begiratu gero, nabari daitekeena hau da: eskola utzi zuenak edo lehenengo ziklotik aurrera jo ez duenak zailtasun handiagorekin egiten duela topo lana aurkitzerakoan.

horrela, Goi eta Erdi Mailako ikasketak burutu dituzten artean Bulegoan apuntatutako guztien % 13a besterik ez du ematen. Gehiengoa eskolatan ematen den zertifikazioaren jabe da eta beste asko O.H.O.ko ikasketak eginda dauzkatenak.

Heuren ikasketekin jarraitu eta, bide batez, Eibarko Enplegu Bulegoan izena emanda dutenak 440 dira. Hauek langabezia ez dauden atal hori betetzen dute, aldibateko lana dutenekin batera -252-, etendura edo erreduziozko expedientea jasaten dutenekin -929-, beste enplegu bat daukatenekin -919-, INEMeko ikastaroetan parte hartzen dutenekin eta abar. Apirilean, enpleguaren erregulaziozko expedienteak 929tik 1236ra pasatu dira, garrantziko igoera eman delarik.

Dena den, langabezia ez baina apuntatu dauden igoeraren zergatia neurri dauden batean behintzat eman den informatizazioari lotu behar zaio.

Iñaki Zubillaga



30 urtekoa. Entrepresa Zientzietan Lizentziatua. 3 urte jarraian Heziketa Okupazionala eta Erreziklari Profesionalen emanda, antolakuntza eta koordinazio lanetan; guzti hau Debegesa, Ikasbat eta Eskualde Komitetik.

Gaur egun, Deba Beheko Eskualde Komitetiko enplegu eta heziketaren tekniko moduan lan egiten du. Erakunde hau Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak bultzaturikoa.

Langabezi munduan badirudi azken urteetan bizitzen zen aurrerapenak ez duela jarraitzeko asmorik. Datuen geldialdi honek zer adierazi nahi du? Nola jo genezake aurrerantz?

Geldialdia bakarrik ez. Nik gehiago esango nuke: ikusten dudanez, langabezia gero eta handiagoa da gure artean eta uste baguenen ere krisi ekonomikoaren txarra den jadanik gaintuta genuela, gaur da eguna horrela gertatu ez dela ikusteko. Nazioarte mailan ematen ari diren zirkunstantziak badute bere eragina atzeratze honetan, baina hala ere eta asteko, gure enpresen egoera aztertzea komeniko litzaiguke: antolakuntza aldetik, dimentsioari begira, kualifikazioak direla, produktuen moetak, sektoreen asuntua,...

Ekonomi aldetik eta entrepresa munduaren azterketa hau Eibarren eta Eskualde osoan gaur egun Eskualdeko Estrategi Egitamuaeren bitartez egiten ari dira, instituzio eta jende pila batek parte hartzen dutelarik. Asuntua, gai honetan, ez da zeinek eskeintzen duen bere aportazioa; alde guztietakoak da beharrezkoa. Dirua lortu behar da eta berdin dio nondik: Udaletxetik, Diputaziotik edo den lekutik dela.

Aurrera eramateko gai garrantzikoena bezala heziketarena aipatuko nuke, sistema erregulatu nahiz okupazionalen. Ez dugula ahaztu behar erlazio zuzena dagoela pretsonaren heziketa maila eta lan mundura sartzeko ahalbideen artean. INEMeko jendea eta Eskualdeko Komiteak lan bateratu baten dihardute ideia hau langabetuen artean zabaltzeko, gero eta ugariagoak izango diren ikastaro ezberdinak eskeintzen.

Guzti hau, logikoa denez, Udaletxe, zentru tekniko, sindikatu, entrepresa eta eskualdeko beste erakundeekin etengabeko harremanetan murgildurik.

Langabezia Eibarko Bulegoan (Deba Beheko Eskualdekoa)

	87ko Maiatzean	90ko Maiatzean	91ko Maiatzean
EMAKUMEAK	2.345	2.275	2.309
GIZONAK	2.941	1.380	1.494
GUZTIRA	5.286	3.655	3.803

Eibarko Langabezia

	89an	90an	91an
Kopurua	2.749	2.164	- 585
Langabezi tasa	% 19'84	% 15'62	% -4'22

... eta gainera

GAURTIK AURRERA 6. ORRIAN EIBARKO HISTORIA KAPITULOTAN PEDRO ZELAIAREN ESKUTIK.

"... eta kitto"ren beste eskulibata.



BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK

ETESA
KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa / Tfnoa. 12 19 73 (Eibar)

NEURTEK S.A.

AMAITUTAKO SUPERFIZIEN KALITATEA
KONTROLATZEKO TRESNAK

Txaltxa Zelai 1. Tfnoa. 702079. Faxa: 700212 EIBAR

FIAT

DEBA ALDEKO BANATZAILEA

Tfnoa. 12 10 00
12 10 19

HOGEL, S.A

Bittor Sarasketa 7.

EIBAR



Egitarauak? Nahi beste

Bi hilabete, hilabete t'erdi, hilabete eta aste bat... Galdu gabe gramatza egunen joanak, eta nola ez etorrerak! Txokoko izkinari bira eman eta bertan daukagu San Juan, urtero bezalaxe jai-egitarauak banatuaz: gauerako egitaraua, eguneko egitaraua, oporretan joatekoa, etxean igarotzekoa...

Benidorm eta Mallorca ditugu lehen aukerak, guztien esku egon daitezkeenak, merkealdi sakonean sartu ezkeru, noski. Egitarau honi jarraitzen diotenek, beraien osasunaren arduradun dira ez bait dituzte tabernetako usai eta keak irentsiko, horren ordez eguzkia (erdi gaisotua) hartuaz.

Bestalde gaueko egitaraua, gurasoei fidel eta zintzo aurkezten zaien gazteentzat zuzendua dago. Kearen erruz (ez pentsa keaz kearen beste edozer izan daitekeenik) begiak gorritzen zaizkion gazteentzat, edo ta amak, ardoa gainetik nahigabe bota diotela, sinisten dion gazteentzat, eta zergatik ez, erdi mazorke erdi itxura dagoen, baina bere gurasoen bronkaren aurrean, burua jeitxi nahi ez duenez, itxura gorde nahi baina ezin, dabilen gazteentzat. Bigarren egitaraua honek, antzerki eta inprobisazio lanetan nolabeteiko ikastaroa eta esperientzia dakar berarekin. Jai nagusi batzuetan ez bait da batere erraza, guraso eta ikuslearen artean, edozein Edurne Zuriren papera betetzea, begi gorritz eta ura ez den zerbaiten usainez, horniturik zaudenean batez ere. Baina noski lortu ezkeru, ez ezazu aktore edo aktorea izateko esperantzarik galdu.

Hirugarren egitaraua, bigarrenaren errelebotzat har dezakegu, formal-formal, egunkaria eta ogia eskupean dutelarik, etxeratzen direnak desagertzean, gauean irtetzerik izan ez zuten (arrazoiak: tripako mina, gogo eza, aita-amen ezetza edo arrazoi ezezagunak...) Eibartar eta ingurukoak kaleratzen bait dira. Honela, barraka, Untzaga plaza, buru handien jarraitu beharreko bidea guztiz beteaz.

Egitarau honen aukera, hizkuntzaren espresamoldean datza, ez bait dira hiru minutu igaroko, ezagunen bat topatu eta berarekin hizketan hasi arte.

Ez dezagun ahaztu ikasle "unibertsitario" batzuen San Juan egitaraua! Benetan, etorkizunera begira prestaturikoa. Gustora eta irriki gabe, hotsetatik at, bakoitzaren ikasketetan patxada osoz murgildua. Agian, azken plan hau izango da guztietan osasuntsuena, tabernetako keaz urruti gelditzeaz gain, ariketa mentala praktika dezakezu eta nola ez dirua aurrestetik ere baduzu.

Beraz, San Juan jaunaren eskutik harturiko proposamenak aukeratuaz eta landuz joan gaitzake egunen joan-etorreren kontua bukatzeaz bait dago eta bizkor jardungo dugu "San Juan, juan zan" esanaz.

Soinegokitzea eta gorputza zaintzea azkenengo moda edo benetako aldaketa?

Modak aldakorrak izaten dira, eta egun indarrean dagoenak bihar ez da ezertarako balio. Oraingo, gure gazteen artean, modan dagoena kirolari ekitea da. Bai ohizko eran futbola, mendia, eta baita ere modan dauden gimnasioetara apuntatuz. Udaren hurbiltzeak grasak kentzeko grina areagotzen du eta, kirolaren moda hau, negozio lukratibo bat bihurtzen ari zaigu.

Modak aldakorrak izaten dira, berez. Gaur egun indarrean dagoen joera bat, urte batzuren buruan gauza guztiz absoletoa bihurtu daiteke, modaren poderioz. Azkenengo urteetan kirolaren praktika zeharo hedatu da gure artean, batez ere gazteen partetik. Ohizko kirolerik aparte (mendia, futbola, txirrindularitza...) kirol eta ariketa berriak sortu dira kirolaren praktika zeharo hedatu da gure artean, batez ere gazteen partetik. Ohizko kirolerik aparte (mendia, futbola, txirrindularitza...) kirol eta ariketa berriak sortu dira kirolaren praktika zeharo hedatu da gure artean, batez ere gazteen partetik.

Dena den, nabaritzen dira aldeak moda edo joera berri honetan ohizko kirolengana. Agian bizi dugun kultura urbanoak bultzaturik ahalik eta denbora gutxien gastatu nahi dugu gure gorputzaren egokitze lanetan, denbora bera faltan dugulako, batez ere. Horregatik bizileku urbanoak kirola praktikatzeko lekuez "bete" dira, behar berri horri aurre egiteko. Ez soilik instituzio publikoak bultzatutakoak, baita ere negozio pribatuak bezala enfokaturik, hots, dirua irabazteko medio bezala ikusirik.

■ Mens sana...

Soin-egokitzearen moda honek, instituzio publikoen bedeinkapen guztiak jasotzen di-

tu, onarpen sozial orokor baten seinale. "Egia da", dio gimnasio baten partaideak, "gizarteak ondo ikusten du kirolaren promozio hau, eta gero eta jende gehiago animatzen da kirola praktikatzera. Orain dela urte batzuk, drogak hartzen zutenak zeuden modan, hainbat gaztek haiek hartzen zituzten eredu bezala. Gaur egun, berriz, modan dagoena gorputza zaintzea eta ahalik eta bizimodu osasuntsuena egitea da".

Agian, lehenengo joeren gehiegikerien aurrean erantzuna hau dugu. Horrela, bai polideportibo, gimnasio eta kaleak ere kirola praktikatzeko duen jendez bete dira. Kirolaren historia bat sortu dela esan genezake ere, askok neuririk gabe ekiten bait dio ejerizioari. Dena den, modaz aparte, alde kronolojiko bat ere izaten da kasu hauetan: adituen ustetan, kirol praktikatzailerik hauen kopurua zeharo igotzen da uda heldu baino lehenxegoko hila-beteetan. Agian, hondartzarako egokitu nahian. "Askoei trumoiak asterakoan bururatzen zaio Santa Barbara", dio humore onez izerdi patsetan dagoen gimnasio bateko bezero batek.

■ ...in corpore sano

Nahiz eta "soinegokitze" hitzak kulturisten figura giartsua burura ekarri, Eibarren horrelako ariketak egiten dutenak oso gutxi dira. Gizo-



nezkoez jeneralidadeak, squash partiduak jokatu, pesak jaso eta sauna erabiltzen du. Beraz, soberan dauden grasak kentzeko eta inadarrak igotzeko baliogariak diren ariketak. Horregatik, telebistan eta zinemaren sarritan agertzen diren gorputz ikaragarri hoietako gutxi ikusten dira gure herrian.


Neskeei dagokionez, Jane Fondak modan jarritako "aerobic" ariketak dira popularrenak, "mantenimenduko gimnasiarekin" batera. Tipoa mantentzeraz zuzendutako ejerzizioak ditugu erabilienak, sauna eta squash partiduekin batera. Gauzak horrela, ez dago alde handirik gizonetakoek erabiltzen dituzten ariketekin. Soilik pesajasotzea ez da oso popularra nesken artean. Itxuraz, giarren mirespena ez da oraindik zabaldu gure neskaten artean eta, kronista apal honen ustetan, guztien onerako.

■ .Negozio berri bat

Modak ez dira gizartearen joera eta portaerak aldatzen dituzten mugimenduak soilik, egundoko negozioak bihurtu daitezke. "Soinegokitzearen" kasuen ere, miloiak mugitzen dituen negozio bat dugu, nahiz eta Eibarren zifrak xumeak izan, gure herriaren tamainoagatik. Dena den, Eibarren badira negozio honetara zuzendutako zenbait gimnasio, hileroko kuotak 4.000 pesetaren inguruan izaten direlarik, eta, azkenengo urteko datuei gainbegirada bat emanez, hedatzen ari den negozio bat dela esan dezakegu. Horretaz aparte, kirolaren praktikarekin beharrezkoak diren jantzi eta tresnak saltzen dituzten dendak gero eta ugariagoak dira.

"Bai, hau negozio bat bezala enfokaturik dugu, jakina", dio gimnasio bateko arduradunak, "gure bizimodu kirol praktikaren inguruan saltzea nahi dugulako. Baina, nere ustez, hau ez da negozio simple bat bezala ikusi behar, hau ez da taberna bat bezala, esate baterako. Guk osasuna "saltzen" dugu; jendea guregana etortzen da hobeto sentitzea eta heuren gorputzak desarrolatzeko. Ogibide polita dela deritort".

Nahiz eta gimnasio pribatuak izan Eibarren, gure herrian gehien erabiltzen den gimnasioa polikiroldegia dugu. Ipuruan, prezio nahiko txikien truke, mota guztiko ariketak egin ditzateke gure herrikoak. Zerbitzu publiko honen arduradunaren asmoa moda pasatzerakoan kirolaren grina gure herriko gazteengan sortua izatea da.



Eibarren ere badago tokiak gorputza zaintzeko.

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA

TRATAMENDU EGOKIAK

ZEZENBIDE, 6 (EIBAR)

Tfnoa: 11 00 70

BOSSA

Garagardotegia
BURGUER
Gosariak

Goizeko 9etatik aurrera zabalik


EGO GAIN Kalea z/g (Arrate Hotelaren ondoan) EIBAR

MUEBLES
VICTOR

Uleb. Behua, 23

Rfnoa. 70 09 39

E.I.B.A.R.



Peio Palazin

Donostiako Kontserbatorioan ematen ditu soinu klaseak 30 urte dituen Peio Palazin eibartar gazteak eta baita Eibarren ere. Enpresariales ikasketak alde batera utsi zituen bere denbora eta azken finean bere bizitza Akordeoiari dedikatzeko. Kontraesankorra iruditu daitekeen arren, Kasualidade hutsez sartu zen musikaren munduan 7 urte zituela, bere aita, soinu txiki bat erosi ondoren berari oparitu zionean. Eibarren Felix Aranzabalekin ikasi zuen, eta orain bere Akademia propioa izateaz gain, lau urte darama Donostiako Kontserbatorioan Irakaskuntzaren munduan ere zenbait proiektu aurrera eramateko asmoarekin.

Akordeioa edozein motatako musika egiteko tresna ederra da

Eta Kitto.— Azken aldian Soinua berrentzuten ari da: hor ditugu zenbait izen aipatzekotan Kepa Junkera edo Tapia ga Leturiaren estilo berritzaileak. Zer esan diezagukezu honi buruz, moda bat ala agian eboluzio bat kontsidera dezakegu? **Peio.**— Nik uste dut bi gauza desberdinak direla: bata trikitrixa eta bestea nik egiten dudana. Jendeak uste du soinua bakarrik folklorikoa dela, eta ez da hori soilik. Akordeoiak arlo ezberdinak hartzen ditu; izan ere ez zen jaio tresna folklorikoa bezala beste edozein musika tresna bezala baino. Gero bihurtu zen folklorera, eta orain hasi gara berriro ikusten ez dela bakarrik folklorea edozein motatako musika egiteko tresna ederra baino. Soinua ondo ikasiz gero, musikaren historia oso ondo ikasteko guztiz baliogarria. Beraz, folklorea oso ondo hartzen du akordeoiak, baino tresna honek landu dezakeen arlo bakarra ez da.

Eta Kitto.— Donostiako Kontserbatorioan ematen dituzu klaseak. Zer esan dezakezu mundu horri buruz?

Peio.— Mundu hori izan behar da norberak ondo antolatutakoa eta edozeinek ikasketak modu serioan egiteko bertan sartzean zer egin

nahi duen jakin behar du. Gainera ikasketak oso gogorak dira.

Eta Kitto.— Zeintzuk dira soinu-joleak izan behar dituen ezugarriak?

Peio.— Edozein instrumentu jotzeko beharrezkoa da jakina norberarentzat gustokoa izatea, eta jakitea zer egin nahi duzun. Beharrezko da ere kualidade eta sentsibilitate piskatxo bat, sakrifizioa ahaztu gabe. Gainera beste arazo bat dago, zeren gaur egun Ikasketak akademikoak egiteko, eta hau musika tresna guztiekin gertatzen da, BUP, COU eta holako ikasketak burutuak izan behar dira, eta hauek ez dute beste gauzak egiteko denborarik uzten. Dena den, datorren urtean indarrean jarriko den lege berri baten arabera, posible izango da Batxillerato Artistikoa egitea, hau musika ikasi nahi dutenentzat guzti positiboa eta baliogarria izango delarik. Hauxe irakasleentzat ere oso ona da, zeren ikasle modura benetan musika ikasi nahi dituztenak izango ditugu.

Eta Kitto.— Denbora ezinbesteko faktorea da musika tresna bat ikasterakoan, ez?

Peio.— Bai, dudarik gabe. Zeren denbora behar duzu ez bakarrik orduak sartzeko baizik eta baita guzti

hori asimilatzeke ere. Denbora behar da hori bukatzerakoan beste gauzak egiteko, lagunekin ibiltzeko e.a.


Eta Kitto.— Zeintzuk dira Peio Palazinek geroaldirako dituen proiektuak?

Peio.— Orkestra txiki bat sortzea pentsatuta daukat, eta ikasleei ez bakarrik musika irakatsi, zeren uste dut ikasketak modu serio batean egin nahi dituen edozein ikasle hiru arlo landu behar dituela: solista bezala, bikote bezala eta gero orkestra, azken finean perfektzioa lortzeko. Hau ere nire proiektuen barruan dago.

Eta Kitto.— Zer sentitzen duzu zure ikasle batek emaitza edo fruitu onak ateratzen dituenean?

Peio.— Honek esan nahi du lana ondo enfokatuta joan dela. Hala ere batzutan nahiz eta lana ondo enfokatu, gertatzen da emaitzak ez direla espero bezain onak, askotan dena momentu batzutan erabakitzen delako azkerketa ego kontzertuetan. Beste batzutan, aldiz, ondo ateratzen da. Beraz, inkognita hor gelditzen da, eta nik uste hori dela musikaren etsairik handiena, eta horregatik uste dut hain zuzen ere denbora behar dela gauzei bueltak emateko edo asimilatzeke.

...eta kittok! Gomendaturik



Living Colour musika, denboran aurrera

Ez dakigu ezagutuko dituzuen, baina azken urte honetan gero eta gehiago ari da beraien izena gure artean entzuten. Juan zan urtean, Rolling Stones eta Guns'N Rosesen tonero izan ziren behin baino gehiagotan Ameriketara, eta jakin ahal izan dugunez, sekulako arrakastaz gainera.

Beraien izena LIVING COLOUR da eta aurkezten diguten diskaren izenburua "Time's up"; berrikuntza eta freskotasan osoz burutu.

Lan hau entzun eta gero, eta inolako dudarik gabe, esan dezakegu, talde honen musika gusto ezberdinetako gende askori gustatuko zaiola. Honen arrazoia, lantzen dituzten estilo ugariaren ondorio da: amodiozko abesti moderno batetik hasita, Anthrax erako Trash Metal potente bateraino, Funk, Rap eta beste estilo askotarik pasatuz.

Eta noski, hau dena lortzeko erakus-

ten duten instrumentuetarako maisutasuna guztiz aipatzekoa da, zeren nahiz eta Amerikar beltz hauek oso gazteak izan, nortasun eta maila izugarria erakusten digute.

Gainera erabiltzen duten janzkera ere oso bitxia da, oso koloretsua, taldearen izenari ohore egiten diolarik: "Koloreetan bizitzen"

Diska hamabost abestiez osatua dago eta lehen aipaturiko freskotasan ez goitik behera. Izenburu batzuk aipatzekotan "Solace of you", "Someone like you" edo "Elvis is dead" izendatuko ditugu.

Ah! eta ahal baduzue, zoazte lehen bait lehen dendara diska hau erostera edo lagun bati eskatu grabatzeko, zeren musila estilo desberdina talde berdinean dartzatu nahi badituzue, aukera ezin hobea daukazute denborarekin bat eginez doan talde Amerikar gazte honekin.

Eibarko historia

Agur t'erdi irakurle. Azken inkestan jasotako eskaeren artean hau da seguru asko egin dizkigutenean artean preziazatua. Eskaera sus-traitua dagoenez gero, ez dugu izango arazorik jaso eta erantzuna ematea besterik. Hori dela eta, Pedro Zelaia, Eibarko Hiriarren historiaren gainean liburua egina duenarekin harremanetan jarri eta lehen-lehen momentutik prest agertu da hilero kolaborazio bat egiteko. Horrela bada, dakiguna baino behiago jakin ahal izango dugu gure herriaren gainean eta, aldi berean, geure burua hobeto ezagutzeko balio izango du.

Esan beharra dago autoreak bertoko euskararen idazten duela eta guk bere horretan emango dugula argitaratu inongo aldaketarik egin barik. Ez dugu zalantzarik orain sortu dugun atal berri hau denon gustokoa izango dela eta autorea-ri eskerrik beroenak emanez "EIBARKO HISTORIXAN ZIAR..." lehen artikulua on egin dizula.

Ez uste gero gure Eibar atzokua danik! Ezta gitxiagorik be ez. Egia da, legez, 1346'garren urtian sortu zala. Añ zuzen be Alfonso XI'garren erregia izan zan Villanueva de San Andrés izenakin erri moduan bizitzeko eskubidia emon eskuna. Baiñan ordurako, emen inguruko basarritarrak eta inguru auetan bizi ziranak eibartar sentitzen ziran eta, zelan ez!, berentzat erri onen izen benetakua EIBAR zan. Olaxe, gainera, agertzen da amabostgarren gizaldi ezkerro dokumentuetan.

Oso kontuan eukitzekua da, emen bazala jauregi famatu bat: Unzuatarren Azitaingo jauregia. Etxe onetakua, gainera, oñaztarrak ziran. Aspaldiko jauregia, benetan! Badakigu 1193'garren urtian, bertako alaba Don Celinos, Naparruko erregien senitarteko zanakin ezkondu biar zanian, barriztua izan zala jauregi au.

Beste datu bat: 1.267'garren urtian, eta ziur asko lenago be bai, bazan San Andresko elixia. Eta ori dakigu historian agertzen dalako, orduko Kastillako erregiak elixa onen zaindari edo patrono izatia Elgoibar-ko Oloaso jauregiko jaunari emon etsala. Eta zelan Oloaso-koak

Eibarko Historian Ziar...



ganboatarren ziran, eta barriz Azitain-go jauregikoak oñaztarrak, ortik be naiko ixtillu sortu ziran bi famili auen artian.

Badakigu baita be 1277'garren urtian, erregia bera -Alfontso Jakintsua Azitain-go jauregia armaz artua naixan zebilela. Amar urte geruago, errega onen semiak berak Azitain-go Unzueta-tarrak bere menpe euki naiko dauz.

Antxiñako kantu zarretan be ikusten da garai aietan Akondia mendixan izugarrizko konbatiak

izan zirala oñaztar eta ganboatarren artian.

Datu hauek, azken batian, zer es-ten deskue? Emen, Unzueta-tarren gidaritzapean, eta Azitain'go elixia eta San Andres-koaren inguruan, basarri eta alde auetako inguruko etxietan, bizi zirala eibatar sentitzen ziran gizon eta emakumiak. Eta berak izan ziran Kastilla-ko erregiari eskatu etsenak, San Andres elixaren inguruan erri bat jasotzeko eskubidia, eta orrekin batera legez erriari tokatzen jakozen araudi, on-


dasun eta eskubidiak emoteko. Eta olaxe gertatu zan: 1346'garren urtian, Alfonso XI'garren urtian, Alfonso XI'garren erregiak, Villanueva de San Andres izenakin erri lez bizitzeko eskubidia emon eskun. Zélakua ete zan amalagarren gizaldian gure Eibar? San Andres-ko elixaren inguruan ipiño ebezen gure aurretikuak arresi edo muro batzuek torretxoekin, onen barruan be-reen etxe bizitzak jasuz.

Aldatz-gora, iru kale zegoen: Iparkale, Elgetakale eta Txiriokale. Kale lauak, barriz, onek ziran: Hospital kalia, Arraindikalia, Untzaga kalia (gaur Kalbeton) eta, biar bada, Bilbo-zar. Esan leike arresi edo murallak Barrenkalian asten zirala. Barrenkalia, añ zuzen, Iparkaliaren jarraipena zan, naiz eta gero ebakia izan Bedebarrieta kalia zabaltzeko. Garai aretan, Arragueta, Musatei, Ardantza eta Isasi oso erriatik kanpora geratzen ziran.

Ara emen, oso labor bada be, gure Eibar maitiaren antxiña-antxiña-ko barri batzuek. Urrengo baten jarraituko dogu Eibar-ko historian geiago murgiltzen.

Imanol Laspiur: "Ohitturia sortu bihar da ta, euskeria modan jarri."

Eibarko herrixa ondo ezautzen dabenak badaki gure Eibar beti izan dala euskalduna. Gaur egunian be holan izan arren lehen geixen batek euskera eitten bazeban, gaur egunian ehuneko hamabostak bakarrik eitten dau. Euskaltzaindiakoa den Imanol Laspiur-ek azaldu doskunez euskeraz hitz eitteko konplejua sartu da ta erderia modan jarri da. Praktikismua da gaurko Eibarren agertzen dan tendentzixetako bat. Euskeria goititik programau bihar dala ta politiko ta agintarixek ikasi biharra dakela azaltzen dosku Imanolek. Horrez gain ohitturia be sortu biharko litzake ze: hizkuntza baten erabilkeria ohittura bat da.



Arregik ekarri eban Euskal Herriko alfabetatze eta euskal irakaskuntzaren oiñarri barri bat. Talde ta irakasle guztiak alkartu, metodologia barri bat, beste dinamika bat, moral bat, eduki bat... Euskal Herriko euskerari berari itxaropen bide

Elgoibarren % 100, eh? Ta Ermuan % 100. Ta oiñ badakigu % 15 edo gariala gu Eibarren euskeraz berba eitten. Konpromisorik eztao. Praktikismua dao hamen: soldata ederra etara ta, biaje luze batzuk eiñ ta, pisu bat

moduan hartu ta aurrera jotzen eztan bittartian, hamen kitto dao!!! Nik uste dot hamen euskeria goititik-bera galdu dala. Politikuak ta agintarixak ez badira hasten imagiña bat emoten...eztakau zeregiñil!!! Euskeria goititik-bera salbau bihar da.

Gaur euskal politikuak, edozeiñ lekutakuak dirala, esaten dabe: «gu Euskal Herrixagaittik gabiz»...-Heurak, hori egixa dala demostratzeko, euskeraz ikasten hasi bihar dia!! Ta bestelan lekutan gabiz.

Eibarren zer eiñ biharko litzake euskerian egoeria hobetzeko?

Gure eibartarrak gatxa eristen detsa. Kontzientzia kolektibo bat bihar dala pentsatzen dau ze... "Eibarko jentia ez dozu mobiduko ezer eitterta, ta asko eiñ bihar da. Jentia modan jarri bihar dau euskeria."

Beste alde batetik legiak dao: "oiñ daozen legiak aldatzen ez dian bittartian gu galduta gaoz." Begibistakua dala diño bi komunidadade daoze Euskadin: bai linguistikamente, bai soziologikamente ta bai soziolinguistikamente; bata euskalduna (euskeraz dakixena ta erderia be berba eitten dabena) litzake ta bestia, erdalduna (honek eztao pauso bat bera emongo euskeria ikasteko orduan).

Hori holan izatiaz gañera badao beste gauza bat be: hizkuntza baten erabilkeria ohitturia danekua dogu. Ze fenomeno psikologiko dao hor? Jentia euskeraz berbetako ohitturia sortzen bada lagun artian, hori apurtzia gauza nekeza da ze: "hizkuntza harreman bat sortzen da, ta hori oso inportantia da". Imanolentzat, beste gauzen artian inportantiena euskeria litzake danok batzeko, ze: "ezerk alkartzen bagaittu, euskeriak alkartu bihar gintuntzke".

Gaur euskal politikuak, edozeiñ lekutakuak dirala, esaten dabe: "gu Euskal Herrixagaittik gabiz"... Heurak, hori egixa dala demostratzeko, euskeraz ikasten hasi bihar dia!! Ta bestelan lekutan gabiz.

Aurtenguan Euskaltzaindiaren babespean eta UNESCOren Alfabetatzearen Nazioarteko urtearen inguruan antolatua erakusketa Eibarren izan da Maiatzaren 17tik 21era danondako ezauna dan Txaltxa-Zelaixan. Letrakit izenekin bautizautakua izan da erakuskota hori.

UNESCO kulturak gordetzen dittuan erakunde mundial bat da ta urtietan zihar argitaratzen dau aldizkari interesgarri eta inportante bat: UNESCOren Albistaria - El Correo de la UNESCO euskerazko bersinua be badago.

Imanol Laspiurrek adierazi doskunez holako gauza batean dirua gastau ordez hobe litzake beste euskeraren aldeko gauza batzutarako erabiltzia. Eibarren euskerak daroan bidia argi ta garbi azaldu dau ez dala bapebe ona.

Zelakua izan zan alfabetatze mobimentuan hasieria Eibarren?

Alfabetatzian hasieria zelakua izan zan ikusteko Eibarren irakaskuntza mailan egon dan ibilbide luze bat ikusi biharko litzakela azaltzen dosku Imanolek: "alfabetatzia ez da holan beste barik sortu".

1953garren urtian-edo bost-sei-zazpi lagun elkartu ziran, erdi ixilpian, euskeraz erakusteko. Orduan euskal kulturian kontrako errepreziño gogorra zeuan.

Euskeraz erakusten euren argitaratutako UMANDIren gramatikian hasi ziran. Ta gero, Imanol bera, Zabala Aranaren gramatika soil batekin hasi zan erakusten. Orduan ondiok ez zeuan mobimentu baturik.

Hainbat hillabetetan Rafael Artola abadiak gidatuta ibili ziran ta hurrekin mailla polita ziran ta aurrerapen haundixa eiñ zeban.

Klasiak, lelangotan, Deportiboko lokaletan izaten ziran. Gero hori gorpuzten jua zan. Beste metodo batzuk be sartu ziran: Patxi Altuna-n "Euskera hire laguna"-n bitartetzkuak besterik beste. Arrate Kulturalian be hasi ziran gero.

Baina garrantzitsuenetarikua Rikardo Arregi-ñ agertzia izan zan: "Etorri zan Eibarrera ta...bere aurkezpena egiñ eban, bere programia zer zan, zelan ikusten zeban alfabetatze-euskalduntzia. Rkardo

★ "Rikardo Arregik ekarri eban Euskal Herriko alfabetatze eta euskal irakaskuntzaren oiñarri barri bat."

★ "Eibar nik ezautu dot %100 euskaraz kalia! Ta oiñ badakigu %15 edo gariala gu Eibarren euskeraz berba eitten."

★ "Erdal sistema bat inposatuta dao, ta sustraittuta gañera. Konplejo bat sortu da."

★ "Ezerk alkartzen bagaittu, euskeriak alkartu bihar gintuntzke."

sendo bat jarri zetsan."

Eibarren zelan ikusten dozu euskerian etorkizuna?

"Txarto, txarto-txarto-txarto. Nik baltz ikusten dot. Kanpoko jentia ta ibilli naizenian esate baterako, bazkaldu ta eitten genduanian ta euskal temak urtetzen zeban...euskeria ta...eurek pentsatzen zeban euskeria; «Joño!! Badator!! Ta...salbatzen dator!! Ta...oiñ Euskal Gobernua ta ezta kaitt zer ta...irakaskuntza ta, ETB ta...ta!!» Ta nik ezetz.

Fenomeno gogorra gertatzen da hor. Len hor zero zeuan euskeran ta zuek somauko dozeu Bilbo aldian ta holako tokitan sartu dala euskeraz eitten da benak len iñor agertzen ez zan tokixan.

Baña Eibarren, Eibar nik ezautu dot % 100 euskeraz kalia!! Ta

erosi hamen ta, kotxe eder bat ta ta bada bi kotxe ta, hiru telebisiño ta, hortik aurrera «bai, bai, bai» baña..."

Zerk eukingo leuke kulpia holako egoera triste baten aurrian?

"Giro bat dao!! Erdal sistema bat inposatuta dao, ta austraittuta gañera. Konplejo bat sortu da, len zuan «complejo de aldeano» ta oiñ ezta kaitt ze konplejo dan baña badao konplejo bat."

Euskeraren egoerian kulpa haundixena politikuen benetako lan sakonik ezian, gubernukuen lanik ezian ta euskaldunok baldarrak garenekuan daola pentsatzen dau Imanolek; "Politikan musturra aurrian sartuta dabizenak, danak!! Ezkerrekuak, erdikuak ta esku-makuak euskera heuren tresna

MUÑO A

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA. 11 13 17
11 62 28

HISPANIA
SEGUROS

Fernando Lejardi Lopez

Plaza Barria, 8-1º Eak. Tfnoa: 11 11 49
EIBAR

Iraolagoitia

LIBURUTEGIA
PAPERTEGIA

Bidebarrieta, 22 Tfnoa. 111617


Careaga



Bitxi eta Erloju-denda
Arte-lanak eta grabatuak

Bidebarrieta, 10

Tfnoa. 11 80 45



Azterketaren aurrean pentsati eta....

Examinak eta azterketak zertarako?

Kaleko entrebistetan ikusi ahal izan dugunez azterketaren kontrako jarrera bat somatzen da. Kurtso bukaeretan ikasle guztiak azterketak oso zailak direla eta beraien kexuak adierazten dituzte: azterketak bata bestearengandik oso jarraiak direla, gogorregiak, materia gehiegi estudiatzeko,..etab. Geure buruari

Institutoko euskarazko maixuak dioenez "lehenik esan nahi nuke azterketak gehiegi baloratuta daudela, garrantzi handiegia ematen zaiela, gehienbat orain ekainean, azterketa finalak datozenean; honek ikasleak azterketa garaian bakarrik ikasten duela demostratzen du, eta horregatik agobiatu egiten direla. Problematika zera da, sistemak eduki konkretu batzuk eskatzen dituela, eta modu batera edo bestera ikasleak dakien ala ez demostratzeko edo neurtzeko metodarik objektiboena azterketa da, eta ez dut esan nahi onena denik."

Azterketak egin beharrean beste metodoren bat posible al den galdetu diot maixuari, eta bere esanetan "nik neuk probatu izan dut azterketarik ez egitea eta idazlanean edo dena delakoekin gaintitzea edo ez gaintitzea, baina noski hau talde txikiekin praktikatua nuen. Gaur egun, maixuok gutxi gorabehera 30 ikasletik gora dauzagu, beraz, talde murriztuagoak izanez gero eta ordu gutxiago lan eginez gero posible ikusten dut."

Iñaki Etxanizek, Eskola Tailerreko zuzendariak esan digunez "guk ez daukagu examiniñik, hiru puntu

galdetu diezaiokegu: azterketak benetan beharrezkoak al dira? Beste ebaluaketa mota batzuk bidezkoak izan daitezke? Hainbeste buruhauste derrigorrezkoa al da? Gai honi buruz Institutoko euskarazko maixua, Eskola Tailerreko zuzendaria den Iñaki Etxanizek eta ikastolako maixu batek euren eritzia eman digute.

kontutan harturik ebaluazioak egiten ditugu: ikaslearen jarrera, errendimendua eta aktibitatea. Gero baremo batzuen bidez nota bat jasotzen dute aurreko arlo bakoitzetik. Ni examiniñen kontra ez nago, egin behar direla ueste dut, gertatzen dena beste aspektu batzuk ere kontutan euki behar direla, examinak bezain garrantzitsuak, eta eskola tailerrean edo gure arloan are gehiago. Azterketak askoz ere indibidualizatuagoak izan beharko liriteke, pertsona bera aztertuz eta zer nolako problemak dituen ikusiz; nahiz eta gaia ondo jakin azterketa bat ez gaintitzea suertatu daiteke, egun txar bat izan duzulako edo dena dela."

Azkenik ikastolako maixu batekin egon gara barriketan, eta laburtuz "azterketa tradizionala beharrezkoa da baina ez bere osotasunen. Ume baten ebaluazioaren zati txiki bat izan behar luke. Ebaluazio bat egiterakoan umearen aptitude edo ahalmen partikularrak kontutan izan behar dira, ume batek dituen ezaugarrien arabera ebaluaketa integral bat egin, non azterketa ebaluaketa horren zati txiki bat besterik ez den."

Azterketak onartzen dituzu edo beste ebaluaketa batzuk nahiago zenituzke?



Iratxe eta Susana. 15 urte. Ikasleak.
"Hilabete honetan examinekin gabiltza eta gainera ez doaz batera ondo. Maixuek examinak egin beharrean hobe lukete beste metodoren bat ezartzea, adibidez lanak bialdu edo horrelako zerbaite."



Julia Laka. 74 urte. Etxekoandrea
"Ze esango neuke examiniñen gainian, ba, gaztiak asko sufritzen dabiela baina ein bihar diala, ta, hor ez dao bueltarik."



Aitor. 21 urte. Lanean.
"Orain lanean nabil eta examinak ahaztuta ditut zeharo, baina urtean zehar egin duzun lana paper batean reflejatzea ez dot ondo ikusten."



Asier eta Jon. 10 urte. 5 mailan.
"Oso gaizki daude azterketak, guk nahiago dugu jolasten ibiltzea etxeko lanak egiten baino."



Aitor Olaizola. 29 urte. Lanean.
"Pertsona batek dakien ala ez jakiteko ez da beharrezkoa azterketa bat egitea, gainera niretzat bati izan dira agobio bat, oso urduri jartzen bait nintzen. Irtenbide moduan proba batzuk egin beharko liriteke baina nota konkretu bat kontutan hartu gabe. Pertsona bera aztertu behar da, ez momentu konkretu batean eskeini dezakeen kapazitatea."



Antonia eta Jorge. 22 eta 25 urte. Maixuak
"Batzuetan ez da zuzena, egun txar bat eduki dezakezu eta ez duzu benetan ikasi duzuna edo dakizuna adierazten. irtenbiderik logikoena ikaslea ondo ezagutzea eta egunez egun aztertea da, baina ez da erraza, horrek lan handia dakarrelako eta klaseak ikasle larregirekin daudelako. 10-12 ikasle egongo balira klase bakoitzeko askoz errazagoa izango liriteke."



Higinia Nogales. 49 urte. Lanean
"Nire alabei entzun didanez oso elkarrekin jartzen dituzte azterketak egiteko egunak, eta askotan ez dute denborarik ongi prestatzeko. Examinak egin beharrean ebaluazio desberdin batzuk egin beharko liriteke, meteria pixkanaka kenduz."



Kristina Fernandez. 25 urte. Andereñoa, langabezia
"Ez ditut examinak onartzen, behar ez diren gauza bat da, gainera kaltegarriak dira pertsonarentzat. Jendeak beste kontzientzia bat hartu beharko luke, ikastea bai baina behartu gabe, plazer eta gustoz ikastea."

Ekainarako - Agenda

ARGAZI ERAKUSKETA
K. Deportiboko ARGAZKI TALDEAK antolatutik
22-tik 07.7ra: Santurtziko BIOTZ GAZTEA Taldeko 5 argazkilariren lanak aurkeztuko dira. Hoiotariko batek azken I. Ojanguren Argazkilaritza-Saria irabazi zuelarik.
L.K.A.ren Erakusketa-Gelan. (J. Etxeberria Kalea)
UDAL KULTURA SAILAK antolatutik
91 SANJUANAK EIBARREN
13an: HELIZE TIRAKETA: PRESIDENTE KOPA
14an: HELIZE TIRAKETA: ESPAINIAKO TXAPELKETArako kanporaketa. 3retan. Arraten. Gaueko 11etan GOLDEN APPLE QUARTET taldea Untzaga Plazan.
15an: Goizez: PLATER TIRAKETA. I. SAN JUAN TXAPELKETA Unibertsitatean. DinbiDanba taldeak antolatutik. / HELIZE TIRAKETA EUROPA TXAPELKETArako baliagarria. Arraten. / Arratsaldez: DEBA-BEHEKO TXISTULARIEN ALARDEA / DONOSTIAKO KONTSERBATORIOko

ORQUESTA TXIKIaren emanaldia / Gauean: "LOS RONALDOS" eta JULIO KEGETA taldeak Polikiroldegian.
16an: "EIBARKO HIRI ARMEROA" III. TXAKURREN ERAKUSKETA. Eroskin. Ego-Haize taldeak antolatutik. / HELIZE TIRAKETA I. ESPAINIAKO KOPA, Arraten / III. MOTO-IGOERA ARRATERA / GOITIBERAK Urkin / ERRALDOI, BURUHANDIen Kalejira / Haurrentzako Antzerkia 2 BIHAR" Taldea.
20an: KONTZERTOA Kontserbatorioan.
21an: SOSTOA KORALA S. Andres Parrokian. / Gauean: "SU TA GAR" Taldea.
22an: "AINTZINAKO EIBARTARRAK" Konpartsaaren KALEJIRA. / ABANKARGA TIRAKETA / HAURRENTZAKO JOLASAK / KARTEL LEHIAKETAREN SARI BANAKETA / Koadrilen aurkezpena eta beraien arteko jokoak: Sokatira eta "El pecado original" delakoa. \ "HARITZA" Taldea Untzagan. / "MOSKOTARRAK" Fanfarria / ZEZENAK / Kale antzerkia.
23an: ESTELLAko DULTZAINEROekin kalejira / TXUPINAZOA / NAGUSIEI

OMENALDIA / SALBEA / FANFARRIAK / MIMO Emanaldia / BERBENAK / TANBORRADA. GAU-PASA..
24an: KALEJIRA / TXISTULARIEN KONTZERTOA / KOADRILEN ARTEKO JOKOAK / HAURREN TANBORRADA / GAU-PASA..
25an: KALEJIRA / ZEZENAK / PAELLA ETA TORTILEN LEHIAKETA / HAURRENTZAKO JOLASAK / HERRI BAZKARIA / TRIKITILARIAK / ANTZERKIA/..
28an: Urkuzuan: Haurrentzako JAIA. CAMP BERBENA: "HAIZEA" eta Udala Musika Banda Taldea.
29an: Urkuzuan: Haurrentzako Jolasak / "ASDRUBAL" Fanfarria / "ALKARTU" Taldearekin Berbena / Zezen-Plazan JAIALDIA (Herriko Taldeak).
30an: XIII PINTURA LEHIAKETA (Eibarko Artisten Elkartea) / ARTISAUTZA ERAKUSKETA BERTSOLARI / TRIKITILARI / HERRI KIROLAK. / DANTZA SOLTE TXAPELKETA (Urkuzuan) / Haurrentzako ANTZERKIA / AZKEN TRAKA.

NORK-ZER

Koordinatzaileak:
Fernando Muniozguren.
Erredakzio taldea:
Ana Aizpuru.
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Oskar Rekalde.
Arrate Zuloaga.
Aitor Gorosabel.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez.
Mireia Ugarteburu.
Argazkilaria:
Jose Valderrey.
Mireia Ugarteburu.
Literatur:
Ane Sarasketa.
Maketazioa:
Jose Valderrey
Komikia/Marrakzia:
Ander Gisasola.
Inprimaketa:
Gertu

KANTABRIA JATETXEA

Ezkontzak
Banketeak
Bataioak

Geure Arrate Zoragarrian

Tfnoa. 12 12 62

calcul mecano

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria
Tfnoa. 70 07 50 / 70 11 95

EIBAR (Gipuzkoa)

BULEGO BERRIA

Posta Kutxa

ZUGANDIK HURBILAGO

Julian Etxeberria, 1
Tfnoa: 70 07 16 - 20600 EIBAR

IBERDUERO

ZEUK BEHAR DUZUN ENERGIA
ZEURE ZERBITZUAN

Urkizu Pasealekua, 7 EIBAR
Tfnoak. Larrialdiak: 12 01 62 Abonatuak: 29 33 00